



IGARTUBEITI
BASERRI MUSEOA

HEZKUNTZA PROGRAMA



Aurkibidea

Aurkezpena	4
Informazio orokorra eta erreserbak	6
Ibilbide didaktikoak	8
Tailerrak	11
Ibilbide bateratuak beste museoekin	19
Elementu osagarriak	19

Aurkezpena

Igartubeiti Baserri Museoko hezkuntza programa aurkezten dizuegu. Hezkuntza eskaintza maila ezberdinei dago zuzendua: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Dibertsifikazioa eta Helduentzako Hezkuntza.

Proposamen hau eskola kurrikulumaren edukien osagarria izan nahi da eta euskal baserriaren historia, bilakaera eta bertan bizi ziren diren biztanleen eguneroko bizimodua erakusten du.

Bestalde, ibilbide bakoitzean Igartubeiti Baserri Museora etorri baino lehenago egiteko jarduera desberdinak ere proposatzen ditugu.

Helburu orokorrak:

- Igartubeiti Baserri Museoak bere barne hartzen duen kultur ondarea eta bere imaginarioaren berri ematea kultura material eta materiagabeen bidez.
- Euskal baserrien bilakaerari eta hauen bizimoduei buruzko informazioa eskaini.
- Zentzu kritiko batetik onartu eta balioa eman denboran zehar ingurune natural, sozial eta kulturean gertatu diren aldaketak eta eraldaketak.
- Historia eta kultur zein natur ondarearekiko aldaketei eta eraldaketei errespetua eta sentsibilizazioa sustatzea.
- Ondarearekiko hurbiltzen sortzailea eta esperientziaz osatua sustatzea, behaketa aktiboan, parte hartzean eta jokoan oinarrituz.

Informazio orokorra eta erreserbak

Bisitaren ezaugarriak:

Taldeak:

- Bisita, taldeak dituen beharren arabera egokituko da.
- Taldea oso handia izanez gero, hau bitan banatuko da antolaketa eta honen jarraipena egokia izan dadin.
- Talde guztiei ditugun aukerak eskainiko zaizkie. Alegia, bisita gidatua bakarrik, edo, bisita gidatua gehi tailerra.
- Ikasleak arduradun batekin etortzea beharrezkoa izango da.

Aurretiko erreserba:

Bisitak egiteko hurrengo telefonora deitu dezakezue 943722978 edo hurrengo helbide elektronikora idatzi igartubeiti@gipuzkoa.eus. Bisita bertan behera uzteko, mesedez, gutxienez bisita baina egun bat lehenago deitu.

Informazio praktikoa:

Igartubeiti Baserri Museoko ordutegia:

Martxoaren 1etik- urriaren 31ra

- Asteartetik larunbatera eta jai egunak
10:00-14:00
16:00-19:00
- Igandeak:
10:00-14:00

Azaroaren 1etik otsailaren 28ra

- Asteartetik ostiralera eta igandeak
10:00-14:00
- Larunbata eta jai egunak
10:00-14:00
16:00-19:00

Helbidea:

Igartubeiti Baserri Museoa:
Ezkio bidea, 1. Km. 20709 Ezkio-Itsaso



Tarifak:

Pertsonako:

- Asteartetik ostiralera: 2,5€
- Osteguna: 1€


Pertsonako bisita ZM-IM bonoarekin eginez gero:

- Asteartetik Ostiralera: 5 €
- Osteguna: 2 €

* Taldeko arduradunarentzat sarrera doakoa izango da.

Informazio gehiago behar izanez gero hurrengo telefonora deitu: 943722978

Irisgarritasuna:



Zerbitzuak:



Ibilbide Didaktikoak:



HAUR HEZKUNTZA

- MARTINTXOREN BASERRIA

Lanketa eremua: Natur ingurunearen ezagutza, Euskal Herriko historia, etnografia.

Helburu espezifikoak:

- Pertzepzio sentsoriala eta ongizate emozionalarekin zerikusia duten jarrerak garatu (jolasa, arakatze lana, elikadura).
- Euren ingurune fisiko eta soziala modu aktibo batean behatu eta aztertu, ingurunea ezagutzeko jakin-mina erakustez gain.

Deskribapena:

Martintxok baserriaren barnealdera gidatuko du taldea bisita sentsorial baten bitartez eta bertan ikasleek zura, harrizko hormak, teilak, artaburuak eta artoaren hostoak ukituko dituzte, lumak eta artilea sentituko, sagardoa, sagardo-zukua eta argizaria usaindu eta ezta dastatu. Gainera, aukera izango dute ezagutzeko baserrian urik gabe nola bizi ziren, zer jaten zuten, zer ohetan egiten zuten lo...

ESKOLAN BURUTU AHAL IZATEKO IRADOKIZUNAK:

Bisitaren aurretik:

Sagardo Astea bideoa, baserriko dolarean sagardoa nola egiten zen erakusten duena.

Bisitaren ondoren:

Igartubeitin ikusi, ukitu eta sentitu dituzten materialei buruzko dinamika egin, baita gaur egun erabiltzen ditugun horien hausnarketa.

LEHEN HEZKUNTZA

- KATTALIN ETA DOMINGOREN BASERRIA

Lanketa eremua: Natur ingurunearen ezagutza, Euskal Herriko Historia, etnografia. Ondare material eta material gabea.

Helburu espezifikoak:

- Igartubeitiko bizimoduaren berri eman: jantziak, etxebizitza, lan egiteko moduak, famili anto lamendua, jolasak...
- Kultur tradizio, ohitura eta adierazpideekiko sentsibilizazioa eta errespetua bultzatu.

Deskribapena:

Kattalin eta Domingo pertsonaien bitartez, ikasleek baserriko eguneroko bizitza nolakoa den ezagutzeko dute, bertako bizimoduak, zereginak eta baserritarrek egiten zituzten lan tradizio-nalak, euren jantziak eta dibertitzeko moduak...

ESKOLAN BURUTU AHAL IZATEKO IRADOKIZUNAK:

Bisitaren aurretik:

Sagardo Astea bideoa ikusi, baserriko dolarean sagardoa nola egiten zen erakusten duena.

Bisitaren ondoren:

Talde-dinamika batean, zerrenda bat egingo dute Igartubeiti bezalako baserri batean egiten ziren lanak eta gaur egun egiten direnak adieraziz.

BIGARREN HEZKUNTZA, BATXILERGOA ETA GOI MAILAKO ZIKLOA

- BASERRIAN BIZITZEA

Lanketa eremua: Landa eremuko paisaia, bertan ematen diren aldaketak, artoaren sarrera, biodibertsitatea, historia, ondare material eta material gabea.

Helburu espezifikoak:

- Iraganeko errealtatea ezagutzeko interesa eta jakin-mina bultzatu, gure gaur egungo gizartearekin duen lotura baloratzeaz gain.
- Gertaera historikoen aurrean jarrera kritikoa bultzatu, gizarte historikoan eta gaur egungoen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak identifikatu, aztertu eta konparatzeaz gain.

Deskribapena:

Ikasleek baserriko eguneroko bizitza nolako zen ulertuko dute: nola bizi eta lan egiten zuten baserriarrek, euren harreman sozialak, sinesmenak, elikadura, aisia, tradizioak...

ESKOLAN BURUTU AHAL IZATEKO IRADOKIZUNAK:

Bisitaren aurretik:

Amama filma, Asier Altunak zuzendua.

Bisitaren ondoren:

Talde-dinamika baten bitartez filma aztertu: baserriko bizimodua, denborarekin sortu diren desberdintasunak...

- DOLAREA, BASERRIAREN BIHOTZA

Lanketa eremua: Zurezko arkitektura, sagardo ekoizpena, habea, indar motak.

Helburu espezifikoak:

- Dolarearen funtzionamenduaren berri eman: Dolareko habeen muntaketa eta desmuntatzea.
- Teknologia, gizakiaren premiei erantzuteko beharra zela eta honen harira hausnartu.
- XVI. mendetik aurrera baserria eta itsasoaren artean zegoen loturaren berri izan. (Errekurtso naturalak, sagardogintza baleazaleak hornitzeko...)

Deskribapena:

Urrian, Igartubeitiko dolarea martxan jartzen da garai batean egiten zen modu berean. Hori horrela, aukera paregabea da sagardoa nola egiten zen ikusteko, sagarraren usaina sumatzeko eta lehen muztioaren lurrina sentitu ahal izateko.

Tailerrak:



HAUR HEZKUNTZA

- GAILETAK EGITEN

Lanketa eremua: Elikadura ekologikoa, jasagarritasuna.

Helburu espezifikoak:

- Errezeta bat nola egiten den jakitea, osagaiak, prozedura, ezaugarriak.
- Esperientzia sentsoriala eskaini elikadura ekologiko baten bitartez.

Deskribapena:

Haurrek taldean gailetak egingo dituzte erabili behar diren osagai ekologiko eta lantze-prozesuari buruzko azalpenetatik abiatuta.

ESKOLAN BURUTU AHAL IZATEKO IRADOKIZUNAK:

Bisitaren aurretik:

Taldean, gailetak egiteko behar diren osagaiak aipatu. Haur bakoitzak etxeko errezeta bat eramango du guztien artean aztertu dezaten.

Bisitaren ondoren:

Igartubeitin egindako gaileten ezaugarriak aztertu: kolorea, testura.



- MUNDUA MINIATURAN

Lanketa eremua: Ingurumena, paisaia, gizartea, jasangarritasuna, ondarea.

Helburu espezifikoak:

- Inguruneko aurkikuntzekiko jakin-mina erakustea, bertako elementuen behaketaren, manipulazioaren eta esplorazioaren bitartez.
- Egoera errealak edo irudimenezkoak antzeztea, jolas sinbolikoaren bitartez.

Deskribapena:

Material birziklatuarekin eta lgartubeiti inguruneko natur elementuekin, haurrek hiri bizidunak eraikiko dituzte eta guztiak elkartuz miniaturazko mundu bat osatuko dute.

ESKOLAN BURUTU AHAL IZATEKO IRADOKIZUNAK:

Bisitaren aurretik:

Talde dinamika baten bitartez, haurrek azalduko dute nolakoak diren bizi diren herrietako edo hirietako etxebizitza motak.

Bisitaren ondoren:

Material birziklatuarekin eta lgartubeitiko ingurune naturaletik jasotako elementuekin haurrek hiri bizidunak eraikiko dituzte, ondoren guztiak elkartu eta miniaturazko mundu bat osatzeko.

- BARATZEKO BIZTANLEAK

Lanketa eremua: Landa eremua, bertan ematen diren aldaketak, artoaren sarrera, biodibertsitatea.

Helburu espezifikoak:

- Baratzearen biodibertsitatearen berri izan, izaki bizidunek bertan betetzen dituzten funtzioaz jabetzea eta horrekin batera landareak bertan landatzea duen garrantzia.
- Baratzea zaintzearen oinarriko kontzeptuak ulertzea.

Deskribapena:

Ikasleek baratzean dauden bizidunen berri izango dute, intsektuak, barraskiloak, zizareak... Jolas baten bitartez euren izenak ikasiko dituzte, nola hazten diren eta ekosistemarentzat duten garrantzia. Bestalde, aukera edukiko dute loreontziaren substratuan landatutako haziak ikastetxera eramateko.

ESKOLAN BURUTU AHAL IZATEKO IRADOKIZUNAK:

Bisitaren aurretik:

Ikasleek zerrenda batean bilduko dituzte baratza batek osatzen dituen elementuak eta honen ezaugarri garrantzitsuenak.

Bisitaren ondoren:

Hazi-mota desberdinak landatu baratzean edo loreontzietan. Landareak hazi daitezen beharrezkoak diren zaintza nagusienak idatzi.

LEHEN HEZKUNTZA

- MUNDUA MINIATURAN

Lanketa eremua: Ingurumena, paisaia, gizartea, jasangarritasuna, ondarea.

Helburu espezifikoak:

- Sorkuntza artistikoaz gozatzea eta ideiak eta sentimenduak adierazteko gaitasuna areagotu.
- Objektuak manipulatzea eta eraldatu bestelako erabilera bat emateko.

Deskribapena:

Tailer honetan haurrek hiri ezberdinak diseinatu eta eraikiko dituzte birziklatutako materiala erabiliz.

ESKOLAN BURUTU AHAL IZATEKO IRADOKIZUNAK:

Bisitaren aurretik:

Talde-dinamikan, herri eta hiri bateko etxebizitzan eta herri batekoen artean dauden desberdintasunak konparatzea.

Bisitaren ondoren:

Talde-dinamika honetan, bizi diren lekua nolako den aztertuko dute, eta euren herri edo hiri ideala nolako izango litzatekeen adieraziko dute.

- GURE AITON-AMONAK BEZALA JOLASTEN

Lanketa eremua: Ondare material gabea, animazioa, aisia.

Helburu espezifikoak:

-Jolas-tradizioak ezagutu eta balioetsi.

-Denboran zehar aisialdia eta jolasak nola aldatu diren hausnartzea. -Memoriaren balioa eta bere belaunaldien artean informazioa helarazi izanaren inguruan errespetua eta sentsibiltatea bultzatu.

Deskribapena:

Gure aitona-amonek txapak, puxtarriak, tortoloxak eta zakuak erabiltzen zituzten dibertitzeko. Baina nondik zetozen material horiek? Nola aritzen ziren jolasean? Zein desberdintasun daude garai hura eta gaur egungoaren artean?

ESKOLAN BURUTU AHAL IZATEKO IRADOKIZUNAK:

Bisitaren aurretik:

Haurrek euren aitona-amonei galdetuko diete zertan jolasten ziren eta jolasteko zein material erabiltzen zituzten.

Bisitaren ondoren:

Ikasleek euren aitona-amonei kontatuko diete zein jolas motarekin dibertitu diren Igartubeitin.

- BARATZEA ZAINZEA

Lanketa eremua: Lanketa eremua: Landa eremua, bertan ematen diren aldaketak, artoaren sarrera, biodibertsitatea.

Helburu espezifikoak:

- Baratzearen biodibertsitateaz eta izaki bizidunek betetzen duten funtzioaz jabetzea.

- Baratza ekologikoak dituen ardurak eta honen ezaugarrien berri izan.

- Baserriko dietaren berri izan eta Ameriketako jatorria duten elikagaiak.

Deskribapena:

Tailer honetan haurrek haziak landatu, lurra prestatu... egingo dute. Barazki ekologikoak landatuko dituzte urtaroaren arabera eta baratze ekologikoa zaintzearen oinarritzko kontzeptuak ikasiko dituzte.

ESKOLAN BURUTU AHAL IZATEKO IRADOKIZUNAK:

Bisitaren aurretik:

Taldean ikasleek euren dieta, ohiturak eta elikagaiak naturalak eta freskoak izateak osasunarentzat duen garrantzia aztertuko dute.

Bisitaren ondoren:

Talde-dinamikaren bitartez hiri-ingurune batean baratze/lorategi bat sortzeko dauden aukeretan pentsatzea.

- BOST ZENTZUEKIN: KOSMETIKA NATURALA

Lanketa eremua: Ingurunearen ezagutza, ingurumena, jasangarritasuna.

Helburu espezifikoak:

- Kosmetika naturalaren inguruan esperimendu bost zentzumeneren bitartez.

- Igartubeitiko ingurune naturala ezagutu eta landare aromatikoaren erabilerak.

Deskribapena:

Parte-hartzaileak alkimista bihurtuko dira egun batez. Zentzumen guztiak frogan jarriko dituzte eta euren sorkuntza pertsonalak sortuko dituzte.

ESKOLAN BURUTU AHAL IZATEKO IRADOKIZUNAK:

Bisitaren aurretik:

- Baratze ekologikoa bisitatzea. Belar usaindunaketa euren ezaugarriak ezagutzea.
- Kosmetikako produktuak lantzeko erabil daitezkeen landare desberdinen zerrenda bat egitea.

Bisitaren ondoren:

Landare ezberdinen fitxa teknikoak egitea. Kosmetiko horiek egiteko jarraitu behar diren pausoak eta erabili behar den materiala adieraziz.

- BASERRIAREN ERAIKUNTZA

Lanketa eremua: Bioeraikuntza, jasangarritasuna, Euskal Herriaren historia.

Helburu espezifikoak:

- Eraikuntzako materialen aniztasuna.

Deskribapena:

Ikasleek baserrira bisita egingo dute bere zutoin, habeen eta materialen berri izateko. Jarraian, jasotako ezagutzak eskuratu ostean maketa bat eraikiko dute.

ESKOLAN BURUTU AHAL IZATEKO IRADOKIZUNAK:

Bisitaren aurretik:

Talde-dinamikaren bitartez, baserri baten eraikuntzaren ezaugarriak biltzen dituen zerrenda bat egitea. *Sagardo Astea* bideoa ikusi.

Bisitaren ondoren:

Bisitaren aurretik egindako zerrenda berreskuratzea eta beste berri bat egitea, Igartubeiti baserriaren ezaugarriak eta bertan biltzen diren gunetako bakoitzean egiten diren lanak adieraziz.



BIGARREN HEZKUNTZA, BATXILERGOA ET GOI MAILAKO ZIKLOAK

- BARATZEA LANTZEN

Baratza zaintzea: Landa eremua, bertan ematen diren aldaketak, artoaren sarrera, biodibertsitatea.

Helburu espezifikoak:

- Baratzearen biodibertsitateaz eta izaki bizidunek betetzen duten funtzioaz jabetzea.
- Baratza ekologikoak dituen ardurak eta honen ezaugarrien berri izan.
- Baserriko dietaren berri izan eta Ameriketako jatorria duten elikagaiak.

Deskribapena:

Tailer honetan hurrek haziak landatu eta lurra prestatu egingo dute. Barazki ekologikoak landatuko dituzte urtaroen arabera eta baratze ekologikoa zaintzearen oinarriko kontzeptuak ikasiko dituzte.

ESKOLAN BURUTU AHAL IZATEKO IRADOKIZUNAK:

Bisitaren aurretik:

Taldean ikasleek euren dieta, ohiturak eta elikagaiak naturalak eta freskoak izateak osasunarentzat duen garrantzia aztertuko dute.

Bisitaren ondoren:

Talde-dinamikaren bitartez, hiri-ingurune batean baratze/lorategi bat sortzeko dauden aukeretan pentsatzea.



- KOSMETIKA NATURALA

Lanketa eremua: Ingurunearen ezagutza, ingurumena, jasangarritasuna.

Helburu espezifikoak:

- Kosmetika naturalaren inguruan esperimentatu bost zentzumenen bitartez.
- Igartubeitiko ingurune naturala ezagutu eta belar usaindunen erabilerak.

Deskribapena:

Ikasleek Igartubeitiko loreen eta landareen basa-esentziaren lurrina sumatuko dute eta gune sensorialean euren formulak landuko dituzte xaboi eta krema naturalak egiteko.

ESKOLAN BURUTU AHAL IZATEKO IRADOKIZUNAK:

Bisitaren aurretik:

Belar usaindunen zerrrenda bat egitea eta ikastetxean loreontzietan landatzea.

Bisitaren ondoren:

- Talde-dinamika baten bitartez, Igartubeitin egindako kosmetikoen lanketa-prozesua aztertzea eta ekoizpen industrialarekin konparatzea.
- Jarduera bat egingo dute xaboiak eta kosmetiko naturalak egiteko jarraitu beharreko pausoak azaltzeko.

Ibilbide bateratuak beste museoekin

- IRAGANEAN BIDAIA

Igartubeiti Baserri Museoa -Zumalakarregi Museoa Bonu bateratua.

Nori gomendatua:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Dibertsifikazioa eta Helduen Hezkuntzari.

Iraupena: 2 ordu eta 30 min.

Helburu espezifikoak: Euskal Herriko kulturak XVI. mendetik XIX. menderarte izan duen bilakaera ezagutzea.

Konpetentziak: Errealitate soziala, gaur egungoa eta historikoa ulertzea.

Deskribapena:

Bi museo hauen bisita gidatuen bitartez, Euskal Herriko historian XVI. mendetik XIX. mendeko ibilbidea egiteko aukera eman nahi da.

Elementu osagarriak

Irakasleentzako aholkuak

Museora egingo duten bisitaren antolaketa errezteko asmoz eta taldeak dituen beharren arabera moldatzeko, Igartubeiti Baserri Museoak aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen du nahi duen irakaslegoari.

Artxibo digitala

Museoak webgune bat dauka (www.igartubeitibaserria.eus) eta bertan informazio ugari jasotzeko aukera dago baserria, landa ingurunea eta baratzaren inguruan.